

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren egiturazko xedapen-aldaketa bati, Txagorritxuko ospitale-multzoa integratzeko

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2019ko urriaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren egiturazko xedapen-aldaketa bati, Txagorritxuko ospitale-multzoa integratzeko.

Erabaki-proposamena

2017ko irailaren 15ean, Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak Gasteizko Hiri Antolamendu Plan Orokorren egiturazko xedapen-aldaketa bat proposatzeko eskatu zien udal zerbitzu teknikoei, Txagorritxuko ospitale multzoa integratzeko.

Zehazki, indarrean dagoen Hiri Antolamendu Plan Orokorra aldatu nahi da: Txagorritxuko ospitale multzoaren kokaleku diren sistema orokorren zehaztapena aldatzeko, eta gaur egun dauden bi lursail handiak eta horien bien artean dagoen bidea lursail bakar batean integratzeko — ekipamendu komunitarioen sistema orokorren kalifikazio globalaz eta osasun ekipamenduen kalifikazio xehakatuaz —; horren ondorioz, Francisco Leandro Viana kaleari garraio eta komunikazio sistema orokorren kalifikazioa kenduko zaio.

Aldaketa egiturazkoa da, Sistema Orokorren zehaztapenari eragiten baitio.

Aldaketaren esparrua bi lursailen kokapen zehatzak eta horien artean dagoen garraio- eta komunikazio- sistema orokorrak mugatzen dute; bakar batean bateratuko dira.

Gasteizko Hiri Antolamendu Plan Orokorren aldaketa honi dagokion proiektuan honako hauek jaso dira: lan taldea, proposamenaren deskribapena, aldaketaren justifikazioa eta beharra, hirigintza estandarrak betetzeari buruzko justifikazioa, aldaketaren izaera eta eremua, bideragarritasun ekonomiko finantzarioaren azterlana, iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena eta herritarren partaidetzarako programa.

Zuzenbideko oinarri hauek dira aplikagarri:

Aplikatzekoak diren legezko arauak dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxienezko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Jendaurrean egoteko epean, Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak nahitaezko txostena egin behar du Plangintza Orokorrean egin nahi den aldaketa —hasierako onespina emateko proposatzen den agirian jasotakoa— dela eta, 2008ko maiatzaren 4an onetsi zen Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluaren Araudiaren 6. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. eta 110. artikulua aintzat hartuta.

Orobat aipatu behar da Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 91.2 artikulua xedatutakoa, non xedatzen baita behin-behineko onespina eman zaion plangintza orokorraren aldakuntzaren proiektua Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igorri behar zaiola, txostena eman dezan; izan ere, horrek guztiak bat etorri behar du lurralde antolamendurako tresna guztiekin zein estatuaren, erkidegoaren edo foru aldundiaren esku-menekoak diren alderdi sektorialekin.

Irailaren 9ko 157/2008 Dekretuak ezartzen ditu Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen zereginak, osaera eta funtzionamendu erregimena. Batzordea uztailaren 10eko 223/1984 Dekretu bidez eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako aholku- eta koordinazio-organo gisa, itsasertzaren eta hirigintzaren inguruko gaietarako.

Dekretu honek 3. artikuluan xedatzen ditu Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen funtzioak, eta 1.f) 1 atalean xedatzen duenez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei behin betiko onespina eman baino lehen haien inguruko txostena eman behar du, baita horien aldakuntzen ingurukoa ere.

Osoko bilkurari dagokio plangintza orokorrari hasierako onespina ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onestea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i) artikulua (Tokiko Gobernu berritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua) dioenaren arabera.

Goian aipatutako arauak kontuan hartuta, honako tramitazio hau izan du dosierak:

– Zinegotzi ordezkariaren 2017ko irailaren 15eko probidentzia tarteko, Gasteizko HAPOn egiturazko xedapen-aldaketa bat egiteko eskatu zitzaizen udal zerbitzu teknikoei, Txagorritxuko ospitale-multzoa integratzea xede.

– 2017ko irailaren 29an Gasteizko udalaren webgunean argitaratu dira planaren aldaketaren aurrekariak, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, onestearen beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta izan daitezkeen konponbide alternatiboak, arautzaileak eta ez arautzaileak.

– 2018ko apirilaren 6an Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin du udal antolamenduaren aldaketa hori jasotzen duen udal teknikarien proiektua.

– Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak dosierari hasierako onespina emateko aplikatu beharreko legediaren eta arauzko prozeduraren aldeko txostena egin du, 2018ko apirilaren 6an.

– Gasteizko udalbatzak hasierako onespina eman dio Hiri Antolamendu Plan Orokorra aldatzeko proposamenari, 2018ko apirilaren 20an.

– 2018ko maiatzaren 7an ALHAOn eta 2018ko maiatzaren 15ean lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratu da hasierako onespina, eta hilabeteko epea eman da alegazioak aurkezteko. Emandako epean ez da alegaziorik aurkeztu.

– Plangintzarako Aholku Kontseiluak aldakuntzari hasierako onespina ematearen aldeko txostena egin du, 2018ko ekainaren 18an.

– Aldaketari buruzko informazio-saioa egin da 2018ko ekainaren 20an, eta udal teknikariek azaldu egin dituzte, bertan, planeamendu aldaketaren nondik norakoak eta alegazioak egiteko aukerak eta modua.

– Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak zuzenbideari egokitzearen eta dosierrari behin-behineko onespena emateko arauzko prozeduraren aldeko txostena egin du, 2019ko otsailaren 15ean.

– 2019ko otsailaren 22an Udalbatzak behin-behineko onespena eman dio planeamendu aldaketari.

– Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzarraren Arabako hirigintza planeamendurako atala proposatutako aldaketaren alde agertu da 2019ko maiatzaren 22an egindako bilkuran (3/2019).

– Aipatutako guztia kontuan harturik, eta behin betiko onetsi nahi den agiriak ez duenez behin-behineko onespena jaso zuen agiriarekiko alderik, udaleko teknikariak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Txagorritxuko ospitale multzoa integratzeko egiturazko aldaketa hori egitearen alde agertu dira, 2019ko ekainaren 17ko txostenean.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriak haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak osatua 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin-betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen egiturazko aldaketari, Txagorritxuko ospitale multzoa integratzeko, Udalaren Hirigintza Saileko zerbitzu teknikoek 2019ko urtarrilean idatzitako proiektuan jasotakoarekin bat.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 22an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

Aldatutako planoak





